

Gaubea

Amamengandik bilobengana



Arabako Herriak





GAU BEA

Gaubea

Gaubea topaketaz betetako harana da. Hango bidexka ugariak herri eta paisaia lasaiak lotzen dituzte.

Varona-tarren leinuak finkatzeko eta irauteko lekua aurkitu du lur honetan. Bere dorrea, Arabako gotor-lekuen artean hobekien kontserbatutakoa dela diote. XV. mendekoa da, eta gaur egun oraindik ere Varona bat bizi da hemen, 40. belaunaldikoa, Rodrigo izena duena, etorki honetako “gizaseme” nagusiek beti izan duten bera.

Munduko zaratatik urrun dagoen lurralde hau, tenplu erromaniko harrigarritz eta Neolitora heltzen diren giza kokalekuen aztarrenez beteta dago. Hortik omen datorkio izena, Gaubea: goba, koba edo antzeko zerbait.

Soro-alorren eta sekretuz betetako mendien artean galdutako 30 herrixka ttikik baino gehiagok 1.000 bizilagun biltzen dute. Asteburua zaratatsuago eta alaiago bihurtzen da.





Jesusaren sendiearen bilduma

Amamarengandik bilobarengana

Lehen eta orain

Jesusa
Nieva-
rekin

Gaubea



Jesusa Nieva Sobronen bizi baina Barriora ezkondu zen, 23 urtetan. Garai haietan, uste zenez adin horretaraz gero ezkontzeko behar bezain heldua izaiten zen.

Ezkongaietan sei il besterik ez eta nekazari baten emazte bihurtu zen. Julianek bizitza ona eman zion, baina lanez gainezka eta gaur den egunean, nekazari edo lurgin bategaz “uztartu” baino lehen birritan pentsatuko ei luke.

Sobron Artzena mendi-lerroko zokomokoen artean ezkutaturik bezala dago, Barrion hamabost etxe baino ez. Julian hogeita hamar urte baino gehiagoz “basalkate” izan zen, hots, Administrazio Batzarreko lehendakari.

Orain, Jesusaren etxetik hurbil, beti bizi diren beste bi etxe dagoz, eta guztiak elkarren artean ahaide.

Hori bai, asteburuetan, oporretan eta jaietan leihoak eta atea berriro irekitzen dira, eta hirian bizi direnak Arabako bazterralde harrigarri honetako lasaitasunera itzultzen dira.





Jesusaren sendiaren bilduma

Txanponik ez zegoen

Sobron Goikoan jaio ziren 15etatik 7, lau neska eta hiru mutil atera ziren bizirik. “Gainerakoek, gehienez ere, zortzi egun irauten zuten, agian hamabost. Orduan ez zegoen gaur egungo aurrerapenik”. Jesusa bigarrena zen, baina 91 urterekin lehena jarri da.

Ez du ahantzi lurrian ibiltzen zen haurtzarora, aitaren atzetik antxintxika, espartinak zolarik bage, oihalarekin baino ez. Tikitan oso bizkorra zen, eta ez zuen zalantzarik behien bila Motara joan behar zuenean, San Martin aldera iragaiten baitziren...

Orduan ez zegoen dirurik erosteko, sendiak iraun egiten zuen, gehienbat jabetzan zituzten soro urrietan biltzen zutenaz eta abere batzuekatzeko zituzten zutenaz.

Jesusaren aita herriko artzaina zen eta ordainetan anega batzuk gari irabazten zituen.

Gogoan du, gudu-aldian batzu-batzuk etxera bila etorten zitzaizkiola, Burgos aldera joaiteko mendiko bideak erakutsi ziezazkien. “Harek ez zuen joan nahi, nondik joan behar zuten irakasten zien eta leihotik ogi zati bat egozten zien”.





“

Espartinek ez zedukaten zolarik, oina estaltzen zuen oihala baizik”

Argazki hau Juan Carlos Abascal' Gaubeaz asko ikasitakoak utzi du



Varona-tarren loretegia. Photo-Araba

Urtebete etxera itzultzeke

Hamahiru urte zituela Gasteizera bidali zuten zerbitzatzera. “Nagusia komandantea zen eta nik zaintzen nituen bi seme-alaba zizutzen”, esan du. Handik hiru edo lau urterata beste etxe batean sartu zen sei umerekin.

Hazi egin zen bera baino askoz gazteagoak ez ziren seinak zaintzen zituen bitartean, janzkaiak garbitzen zizkien eta bizitza ona izaiteaz arduratzen zen.

Orduan, etxera urtean behin itzultzen zen, oporrak emaiten zizkiotenean. Irabazten zituen pezeta urriez amarentzako oihalak erosten zituen, “orduan egindako soinekorik ez zegoelako”, eta Espejoko jostunari eramaiten zizkieten. Sobrondik Espejora oinez joaiten ziren, 5 kilometro, astorik ez bazuten.



Adoretsuena

18 urteek askatasun pixka bat ekarri zioten, lan gehiago ere bai. Sobrongo hotelean hasi zen. Udan 50 arrotz baino gehiago.

Hiru nesken artean, hamasei logelak garbitzen zituzten eta jatorrian zerbitzatzten. Gutxi irabazten zuten eta Medina de Pomar-era joan zen, beste hotel batean lan egitera.

Han batek, maitemindurik, ehun eskutitz baino gehiago idatzi zizkion, nahiz eta berak bakar bati ere erantzun ez, izan ere, Medinara igo beharra ez zuten maite eta “harek ez zuten handik beste lekura aldatu nahi izango, bertan okin lan egiten baitzuen”.

Medina de Pomar-era Sobron Goikoko neska bat zegoelako joan zen. “Non gehiago irabazi eta hara joaiten ginen”.

“

*Nik erretoreari
esaten nion”*



Orotara ohitua

Sobronen, hotel ondoan, taberna zegoen eta Jualian hara maiz, soinu-jotzailea entzutera eta dantzan egitera. Hantxe elkar ezagutu zuten, eta harez gero elkarrekin ibiltzen hasi ziren.

Harik laster ezkondu ziren, eta Barriora heldu zenean ez zegoen argirik etxean, matxura bategatik, baina nekazari bizimodu hari laster egokitu zitzaion.

Orotara ohitua zegoen. Oporretan beti gurasoei laguntzen jardundakoa zen, eta bazekien igitaiaz garia mozten,

trapa erabiltzen, etxeko behiakaz ibiltzen. Barrion, Julianek ereiten zuen bitartean, berak trapaz hazia lurperatzen zuen, idien laguntzaz.

Etxean bost behor zegoen, eta berak behiak nahi eta erosi zituzten. Batekin hasi eta azkenean 40 edukiko zituzten, eta mendian 70 bat ahuntz.


Espejoko harakinak ahuntzumeak erosten zizkien eta, behin edo behin, sarirean bat edo bat irabazi ere bai, pittika lodiak, gizenak zeduzkatelako.

“

“Julianek ereiten zuen eta nik atzetik idiakaz trapa iragaiten nuen”

Argazkiak Jesusaren sendiaren bildumakoak





Sendi oso batua

Lana beti zegoen, bost seme eta alaba bat mundura ekarri eta gero batez ere. Semeetako bat jaio eta bi ilera hil zen. Beste guztiek Espejon ikasi zuten, eta gero hirian.

Miguel Ángel, lehena, etxean bizi da, bere sendiarekin eta Jesusarekin. Nekazari den bakarra, gaur den egunean lehengo

“

*Erditzeak
etxean”*

nekazaritza oso aldatu den arren. Bere alaba Sonia amamarekin bizi izan da beti, eta orain Gasteizen bizi bada ere, asteburu guztietan Barriora joaiten da. 14 urtetan hirira aldatu beharra izan zuen, bere aitita-amama harekin joan ziren, jubilatu ondorean, ondo zaindurik egoiteko bizitoki batera. Amama eta biloba hezur-mami direla argi ikusten da.



Jesusaren sendiaren bildumako argazkiak


Jesusaren alaba, Lourdes, ere Barrion bizi da, eta amaren antzera lorezale da txit. Bien artean, herriko lekuak, ikuztokia, enparantza... lorontziez eta landareez apaintzen dituzte, Arabako bazterralde honetan itxura ezinago ederra emanki.

Ez da harritzekoa, beraz, kanpoan bizi diren herritarrek asteburu itzultzea, eta elkart-

zea, dagoen taberna bakarrean. Landetxe ere bada taberna eta gero eta arrotz gehiago hartzen du. Gorattoago beste bat dago.

“

*Honatzen ez
banaiz, zerbait
peitu dut”*



Fotografías, álbum familiar de Jesusa

Beti Barrio

Barriok, Gaubeako beste zoko batzuen antzera, lehengo bizimodu landatarraren esentzia gordetzen du, lehengo lasaitasuna. Lanak ez du eragozten senitartekoen biltzea, bisitan datorrenari eta adiskideei atsegin izaiteko gogoia.

Soniari, gaur egun Gasteizen bizi den arren, bertan lan egin ere bai, bere betiko herrira bizitzera itzultzea gustatuko litzaioke, baina izan nahi dituen seme-alabek herrian jolasteko lagunik ez izaitea da berretzat tamala. Umeak jolasean, karriketan alaikiro, besterik ez du behar.

Bere ahaikoan 9 lehengusu-lehengusina, eta umezaroan ondo ibiltzen ziren, eta orain ere, noizik noiz elkartzen dira.

Bi landetxe, bi txoko, auzotarrenak, iturri bat, eta barbakoa bat ere kalean norentzat-nahi, hau guztiau nahiko erakarbide ikustaldi bat egiteko ez ezik Barrion luzaz egoiteko ere bai.

Hemendik bide asko hasten da, ehizatarako edo zizatarako lekuak ere ugari inguruotan, edo oinez arnasa hartzera etorteko aitzakiarik ere nahiko edonorentzat. Leku honetan, gutitan egonagatik ere zeure buruarekin bat egoitea erraza da, hemen behiek ere nork bere izena du.





1 Varona-tarren Jauregi-Dorrea

2 Erexoko Parke Naturala

3 Angostoko Santutegia

4 Angostoko Kanpina

5 Parrauen bizitoki misterioitsuak



Gaubea

EZIN BESTE KOAK

6 Espejoko okindegia

7 Edertasun erromanikoa

8 Patatak

9 Estulizko gaztelua

10 Nekazari Ausartak

Juan Carlos Abascali eskerrak



1

Varona-tarren Jauregi-Dorrea

Varonatarren jauregi eta dorrea arkitektura aldetik oso nabaria da eta hormatzarren barruan dadukan ondarea handia. Gaur egun zutik badago bertan bizi direnen egunoroko bizitzari lotua dagoelako da. Eraiki zenaz geroztik beti askazi bereko lagunak bizi izan dira bertan, 40 belaunaldi, eta sendiko lehen seme edo primu guztiek Rodrigo izena ukan dute.

Eraikin itzel honek Arabaren historian esku handia eta eragin ez tikiagoa ukan du.

Itsasotik Gaztelako goi-ordokira eroaiten ziren gaiak, gatza eta arrainak esaterako, hemendik iragaitean ondo begirapetuak ziren dorretzar honetarean.

690. urtean Ruiz Pérez sendiak lehenengo eraikina egin zuen, eta hiru belaunaldi iragota Varona abizenekoetara aldatu zen, borroka baten ondorioz, egun kondaira baina agian egiazkoa izan zitekeena. Lekuok ikustea, arkitekturaren joritasuna, aberastasuna mirestea, eta berdinek ez duen ondarea ederrestea Varona sendiari esker dugu, ondo kontserbatu baitu, eta gaur egungo Rodrigok harro zintzoaz erakusten du.



*Rodrigo Varona
Argazkiak, Photo-Araba*



Gaur egungo Rodrigo Varona





2

Valderejoko Parke Naturala

Burgosekiko mugan, Puron ibaiak zeharkatua, kare haitzez inguratua, duela 5.000 urteko azterrenak daduzka -monumentu megalitikoak, menhirak, trikuharriak eta pinturak-, Valderejo Parke Natural 1992an izendatu zuten.

Era askotako ekosistemak eta paisaiak ditu, azaleraren erdia baino gehiago basoa da —3.500 hektarea—, baina ezin utz dezakezu ikusteke ibaiak arraildu duen haitzarte sakona.

“Ibilaldi luzeak” egin daitezke, eta, gainera, 9 bidexka edo inda ondo zuindurik dagoz parkeko goialdean ikuspegi ederrekin. Valderejon lau herri dagozen arren bitan baino ez dago bizilagunik, Lahoz eta Lalastra, beste biak hutsik.



3

Angostoko santutegia

Haranean jaulkitzen dutenez, XI. mendean, ekaitz gogor baten erdian, Villanañeko artzain batek neskatila bat ikusi zuen ibaiaren ertzean. Andere Mariaren irudia zen, hainbat bizilagunek egiaztatu zutenez. Ordudanik, haran osoan gurtzen dute.

Santutegiaren eraikuntzak gorabehera asko izan ditu. Baseliza batetik aurrera, XIV.ean Rodrigo Varonak eliza handiagoa eraiki zuen, herriaren laguntzarekin. Ondorean, elizak eta komentuak zabalkuntzak eta berrikuntzak izan dituzte. Gaur egungoa XVI. mendearen erdialdekoa da eta XX.ean zaharberritu zuten.

Gaur egun, Angostoko santutegia espiritualtasun-zentroa eta erromeria-lekua da. Angostoko Ama Birjina, erditzeen eta haurren ongilea da, etxerik etxe iragaiten da kapera deritzoten armairu tiki batean.

Santutegiaren ondoan ehunka urteko artea dago. Gaubeako Erret-haraneko Zaldun Garpere jaunek hor batzarrak egin ohi zituzten, gaien eztabaidatzeko eta itunak lortzeko. Aitonseme haiek, infantzoi zeritzenak, titulurik ez zutenak, mairuen aurkako borroketan esku hartu zutenen ondorengoak ziren. Urteetako pribilegio edo lege berezi hau 1812an deuseztatu zen, Kadizko Konstituzioa delakoa onartu zenez gero.

4

Angostoko kanpina

Ia ustebagean bezala, gero eta ezagunago eta oneritziago, Villanañe herrian aisialdirako eta atseideiteko leku bat apailatu da, aukeraz beteriko egonaldiaz gozatzeko. Inguruko bizilagunek ere jolas eta solas egiteko gunea ere bada.

Angostoko kanpina, nolabait esatearren, ametsetako lekua da, izadia arnastu eta sentitu egiten baita eguneko minutu guztietan. Terraza bat behar adina egokituta, oilasko errea edo pizza jateko, igerileku klimatizatu duten kirolguneak eta inguruan ibaia, eta ibaialdean, noiz edo noiz, martin

arrantzale ederrak hegan. Leku miresgarri hau urteko edozein egunetan haintzat hartu beharreko topagunea da.

Zurezko bungalouak, erosotasun osoz, aukera ona dira egonaldi idilikoa egiteko. Eta jatetxea, gaur egun, inguruko sukaldaritzaren erreferentzia da, menu oparoa du eta eramaiteko ere prestatzen du.



5

Parrauen bizitoki misterioitsuak



Photo-Araba

Gaubeako herrietan barreiaturik, 18 haitzulo dagoz, bisigodoen garaikoak antza, parrau edo padar batzuen bizitoki izan zirenak. Iku-si ahal dira. Pinedo, Korro eta Tobillaskoak ziren bezalaxe dagoz oraindik ere.

Eskuz egindako haitzulo hauetan, padar taldeak bizi ei ziren, beti otoitzetan, bakarturik. Kare harrizko haitzetan zulatutako toki horietan bizi eta hil, eta hil ondorean ehortzi egiten ziren. Haitzulo apainduak ere ziren, nolabait, ganga sabaian, leiho eta aldaret-toak zituzten. Garai batean, mairuengandik

ihes etorri giristinoen babesleku edo izan omen ziren, antza.

Kristautasuna eskualdean zabaldu zeneko aztarrenak dira, lehenbizikoak, eta batzuk urteetan otoitz-toki izanak dira -XVIII. mendera arte-. Gero artzainen abaro-leku bilakatu ziren eta ibiltarien aterpe ere batzuetan.

Hainbat dago eta hainbatetan dagoz, hamar bat kilometro inguru: Barrio, Korro, Pinedo, Kexo, Tobillas, Valpuesta, Uribarri eta abarretan.



Ore onak ogi ona, eta leheneko irinaz egina bada hobe.

Espejon badakite. Oraa sendiaren okindegiak urteak daramatza ogirik onena banatzen, belaunaldiz belaunaldi. Ogi luzea edo txapata, egurrez eginak, gaur egun arrakasta handitan dagoz, antzian pamitxa bezala, eta txintxorta ogia ere aukeran, madalenak eta bizkotxoak, jogurrezkoak hain zuzen, ere erosgai.

Modak aldatuz doaz baina muin betirakoa. Jaime eta Maribel jubilatu dira, arazgetu alegia, bizitza osoa garatz horretan eman eta gero.

6

Espejoko okindegia

Garai zaharretan bazkalorduan ere ez zuten saltokia ixten, goizean goizetik ireki eta dendaostean sendiak bere bizitza eta orduan ez zegoen gaur egungo pibratutasuna. Haiek “arazo bagetu” ondorean, iloba batek hartu die lekukoa. Katea ez da etenen, beraz.



7

Edertasun erromanikoa

Kapiteletan eta arkiboltetan zizelkatu ehun animalia eta berrehun giza irudi, batzuek irri itxura dute, beste batzuk negar betean antza, Tuestako Jasokundeko Andere Maria-ren Tenplua zoragarri bihurtzen dute. Dotorea eta originala denez Gaubeako Katedrala esaten diote. Jatorria eta eraikuntzaren inguruabarrak misterioitsuak dira.

Eskualdea altxorrez beteta dago, aurretik sinetsi ezinezko ugariz. Oraindik osorik irauten duten eliza erromaniko batzuk: San Juan

baseliza Karkamon eta San Kornelio eta San Zipriano Bellojinen, zirkuluerdi-formako absidearekin. Tobillasko Erroman Deunarenak 1.200 urte ditu eta horma aurrerromanikoak ditu. Euskal Herriko elizarik zaharrena da eta leku ezkutu eta ederrean dago.

Balluerkako elizan, kanpai-dorreen, aztarrena aurrerromanikoak dagoz, ohikoa ez dena, eta Donemiliagako elizatik at dagoen kanpai-dorrea zirrargarria da oso penintsulan dagoenen artean, Villamaderne herrixkan hain zuzen.

San Martinek Batxikabon dituen bi erre-
taulak zinez bakanak dira, bata barrokoa eta bestea elizako horman margotua. Erdi Aroko zubiak ere bitxiak dira, Bergondan eta Villanañeko El Raberon.

Turismo bulegoak ikustaldi gidatuak eskaintzen ditu.



Severino lanean

8

Patatak

Patatariak. Gure ezizena da, Araba baita patata-lurralde nagusia, eta Gaubea lusagarrik onenak ekoizten diren eskualdea, XIX. mendean haiek erein eta biltzeko lurrak luberritzen hasi zirenetik.

Orain gutxi ereiten da -azaltzen digu Severinok- Toquero futbolariaren aitaitak, nekazaria 40 urtez eta inguruko azken artzaina da. Igitaiatz eta idiakaz hasi zen, traktorea etorrita haraneko nekazarien bizitza aldatu zuen arte.

Patata Azoka urrian ospatzen da, Gaubean, duela 30 urtetik hona, eta bertan mota edo aldaera berriak saldu eta dastatzen dira. Arabako nekazariak urtean hamalau mila tona inguru lusagar metatzen dituzte Udapa kooperatibako biltegietan, tuberkulu horretarako erabiltzen diren 353 hektareetatik jasoak.



9

Estulizko gaztelua




Iristezina, landarez inguratu orratz harritsu baten gainean goititzen da, harmoka edo harkaitzortz batean alegia. Duela guti jakin zen ez dela gaztelu arabiarra, uste zen bezala.

Goi Erdi Arokoa da -IX. edo X.ekoa-, eta Gaubeako haranaren defentsarako usatzen zen. Gotorleku horretarean Tomezillo eta Omezillo ibaiei jarraituz itsasalderantz zihoan gatz-bidea begirapetzen zen. Ez dakigu nork agindu zuen eraiki zedin,

Iruñeko erregeek edo gaztelauek, baina jatorriz zurezkoa izan zitekeen harrizko zokaloen gainean. Gotorlekua, garai batez, Hjarreko dukearena izan zen, Gesaltza-Añanako jaurreriarena, eta geroago osorik berregina.

Estulizko Kontzejuak XIX.ean erosi zuen eta gazteluaren herexak bertako herritarrenak dira.



10

Nekazari Ausartak

Gizon eta emakume askeak, Erdi Aroan beren eskubideen jabeak. Berbeia, Barrio eta San Zadornilgo foruak dokumentatzen du, zehaztasun kronologikorik bage eta anakronismoak alde batera utzita, nola borrokatu ziren Gaubeako herrixka batzuetako nekazariak beren askatasunaren alde, botere feudalaren intromisioaren aurka.

Fernan Gonzalez kondearen, Urraca kondesaren eta Valpuestako apezpikuaren aurrean aurkeztu ziren, X-XI. mendeetan be-

ren eskubide zaharrak berretsita ikusteko. Hilketaren, hilketaren eta kaldaren gaineko zergak ordaintzetik salbuetsita zegoen. Hailako auzitan akusatuak eskua edo besoa ur irakinetan sartzen zuen, eta zenbait egunen buruan erreduarik ez bazuen, salakuntzarik bage geratzen zen.

Gainera, ehizatze eta behiak eta urdeak harrapatze ahalmena galdatu zuten. Erregaren zerga-biltzaileak herrixkotan sartzeko debekua zuen.

Gaubea zenbakietan

Herriak


Azebedo · Estuliz · Batxikabo ·
Barrio · Basabe · Bobeda ·
Karanka-Mioma · Karkamo · Korro ·
Espejo · Fresneda Ginea ·
Gurendes-Kexo · Nograro · Osma ·
Pinedo · Kintanilla · Tobillas · Tuesta ·
Balderejo (Lahoz · Lalastra Erribe-
ra eta Billamardones) · Balluerka ·
Billamaderne-Bellojin · Billanañe ·
Uribarri

Beste datu batzuk

1.097 bizilagun - 2024
3.728 bizilagun (1857)
15 aztarrena errromanikodun eliza
4 hektarea boilur
17 aloka-toki
16 taberna-jatetxe

Gaubea

- ◆● 46 Km ●▶ Gasteizera
- ◆● 65 Km ●▶ Bilbora
- ◆● 139 Km ●▶ Donostiara
- ◆● 136 Km ●▶ Iruñera



Arabako Herriak

Amamengandik bilobengana

Ezinbestekoak, isilpekoak, historia eta ohiturak, ibilbideak eta gastronomia

Gure herrien lehen-geroa protagonisten bitartez, bertan bizi eta lan egindakoek euren oroitzapenak utzi dizkigute, eta lehen haretatik gerorantz goaz. Amamek ohiturrekin ekanduak biziarazi dituzte, baserri zein landerri, gure Araba honetan.

Arabar askok bere herriaren historiari bere istorioa erantsi dio. Oroitzapenen zaintzaile, jakinguraz beteak eta eskuzabalak, isilak maiz, lurralde eder honen nondik-norako guztien berri eman digute.

Askotariko Araba, tokian-tokian berezia eta, honela ere, jendez eta bizierez batua.

Laguntzaileak:



Gehiago jakitearren gure web-gunean

